

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Tuterako Reina Sofía ospitaleak Barazkiak Goresteko Jardunaldiekin bat egin du, menu berezi batekin

Kutz kontseilariak paziente bati zainzuriakin, orburuekin eta espinakekin egindako bazkariaren erretilua eman dio

Jueves, 05 de mayo de 2011


María Kutz Peironcely Osasun kontseilariak Tuterako Reina Sofía ospitalea bisitatu du gaur goizean, zentro horretan Barazkiak Goresteko Jardunaldien XVII. edizioa antolatu delako. Aurreko edizioetan bezala, osasun-zentroak menu berezia prestatu du pazienteentzat eta langileentzat.

Bisitaren hasierako ekitaldian, Miguel Ángel Gil Reina Sofía ospitaleko zuzendariak, Luis Casado Tuterako alkateak, Javier Añón Orden del Volatíneko lehendakariak (jardunaldiak antolatzen dituen entitatea) eta Kutz kontseilariak parte hartu dute. Ekitaldi horretan, kontseilariak barazkien ezaugarri dietetikoak nabarmendu ditu, dieta orekuan ezinbestekoak direnak, eta horiei esker gaixotasun ugari prebenitu daitezkeela esan du.

Jarraian, parte-hartzaileak osasun-zentroko logela batera joan dira, eta kontseilariak gaurko menu berezia zuen erretilua paziente bati eman dio. Menua Reina Sofía ospitaleko sukaldaritzataledeak egin du, eta Javier Blasco Tuterako Sent Soví jatetxeko sukaldariak diseinatu du. Sukaldariak esandakoaren arabera, lehen platera zainzuriak eta irundako arrautza izan da, jarraian legatza orburuekin lagunduta, eta amaitzeko, espinaken bizkotxoak.

Aurkezpenaren ostean, bertaratuek plater horien dastaketan parte hartu dute.

Gogoan izango dugunez, apirilaren 29tik maiatzaren 8ra, Tuterako Barazkiak Goresteko Jardunaldien egoitza nagusia izaten da. Ekitaldi hori urtero egiten da, nazioko eta nazioarteko izaera du eta jendea baratzeko produktuak hurbiltzeko diseinatu da. Ekitaldien programa Orden del Volatínek eta Tuterako Udalak diseinatu dute, eta dastaketak, jardunaldi teknikoak, ibilbide gastronomikoak eta kongresuak izaten ditu.



Agintariek barazkien erretilua eman diote paziente bati.